

# BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

## AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldeztatik aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p><b>Aurkezpena</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Ez da ebaluatuko.</li> <li>■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana).</li> </ul> <p><b>1. ariketa:</b> Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzailerak.</li> <li>■ Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko.</li> <li>■ Denbora: 3 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzaileraren galderari erantzuteko.</li> <li>■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul> <p><b>2. ariketa:</b> Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>■ Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue.</li> <li>■ Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukitzea da.</li> <li>■ Denbora: 1 min. fitxa begiratzeko, eta 6 min. elkarrizketan aritzeko.</li> <li>■ 15 puntu.</li> </ul>	<p>30 min.</p> <p>(10 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

**2. HE**

**(A fitxa)**

**MINTZAMENA**

- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.
  - 10 min. dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min. dituzu azalpena egiteko.
  - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZEIN DA KLIMARIK ONENA BIZITZEKO?**



Munduko toki batean ala bestean bizitzea zeharo ezberdina da klimari dagokionez, eta herrialde bakoitzeko klimak eragina omen dauka biztanleen izaeran.

- Zein da zure herrialdeko klima? Gustuko al duzu? Zergatik?
- Zer deritzozu herrialde batzuetan udako temperatura edota neguko temperatura egiteari beti? Zein dira horren alde onak eta txarrak?
- Gero eta gehiago entzuten da klima-aldaketaren arazoa azkenaldian. Zure ustez, zergatik gertatzen da? Zein izan daitezke horren ondorioak?

## 2. HE

## (B fitxa)


## MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Eman zure iritzia gai honi buruz.
  - 10 min. dituzu gaiari buruz duzun iritzia antolatzeko eta azterketan esango duzuna prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoitxo bat. Gero, 3 min. dituzu azalpena egiteko.
  - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

## NOREKIN UTZI SEME-ALABA TXIKIAK?



Gaur egun bikote batek seme-alabaren bat duenean, zaila izaten da norekin utziko duten erabakitzea, gurasoek etxetik kanpo lan egiten dutelako askotan.

- Gure gurasoen edo aitona-amonen garaian, noren esku geratzen zen ume txikien zaintza eskolan hasi aurretik? Eta orain? Zer nahiago duzu?
- Zer aukera ditugu gaur egun? Zein da aukerarik onena? Zergatik?
- Zer proposatuko zenuke arazo honi irtenbidea emateko?

## 2. HE

## MINTZAMENA

### (aztertzaileak)

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa
  - Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue.
  - Helburua: argumentatzea, negoziatzea eta iritzia trukatzea.
  - 1 min. duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min. inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Kontuan hartuko dugu:

- elkarrizketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jariora, zuzentasuna eta aberastasuna.

## NOLA JOKATU ETORKINEN OHITUREKIN?

Gurean gero eta etorkin gehiago dagoela gauza nabaria da. Badirudi hasiera batean errespetatu egiten ditugula, eta hala izan beharko luke. Baina eztabaida asko sortzen da haien ohiturak, batez ere erlijioari dagozkionak, zenbateraino errespetatu behar diren zehaztean.

Fitxan zenbait argazki ikusiko duzue.

Zuen iritzia eman, bakoitzak berea. Horren ondoren, zuen artean eztabaidatu eta saiatu adostasun batera iristen.

---

### Galdera osagarriak

- Ezagutzen al dituzu etorkin batzuen jatorrizko lurraldeko ohiturak? Zein? Zer iruditzen zaizu?
  - Zure ustez, etorkinak jatorrizko ohiturak utzi eta harrera egin dion gizartera egokitu behar al dira? Zergatik?
  - Zer proposatuko zenuke etorkinak gure gizartean hobeto integratzeko?
-

# NOLA JOKATU ETORKINEN OHITUREKIN?

